

# BALEIKE



202. ZENBAKIA. EURO BAT  
2011ko IRAILA

[www.baleike.com](http://www.baleike.com)



## BANDERARIK GABEKO GARAILEAK

# Kiroljokoa Zumaiako traineruarekin bat!

 Berdintasunaren aldeko apustua



---

//Kiroljokoa Zumaiako Emakumezkoen  
Arraun Taldearen Babesle Nagusia//

---

**kiroljokoa**

[www.kiroljokoa.es](http://www.kiroljokoa.es)



18 urtetik beherakoel debekatuta  
Prohibido a menores de 18 años



# BALEIKE 202

AZALA argazki press



## HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea: Xabier Azkue, Gurenda Serrano

Erredakzio taldea: Xabier Aizpurua, Imanol Azkue,

Abelin Linazisoro, Ainara Lozano Lasa,

Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Jon

Urbietala eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

gurenda@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

10

baleike +

NAGOREREN  
AMETSAK

22

erreportajea  
BEDUAOLAKO  
BATELEROAK

4

hitz-tantak  
JOAKIN ESNAL

7

iritzia  
IKASGELA FALTA  
HERRI ESKOLAN

9

bertso xorta  
JOSU MANZISIDOR

29

erreportajea  
ARRAUN SURFA

32

erreportajea  
BARRAKO MOSAIKOAREN  
KOLORE BIZIAK

37

ipuina  
BELDURRA

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaia Udalak



Joakin **ESNAL** | Pulpo Bigarako entrenatzailea

# “Denboraldi polita egitea da helburua”

Lehen denboraldia izango du aurreneko entrenatzaile bezala. Irailaren 24an hasiko dute liga, eta azkenean, Lehen Mailan segituko du taldeak, aurreko denboraldian jaitsi arren. Taldeen egoera ekonomiko larriak eman die aukera.

TESTUA: AITOR MANTEROLA  
ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA

**Aldaketa urtea da taldean, eta zu zara berritasun nagusia: entrenatzaile berria.**

Aukera askoz gehiagorik ez zegoen, eta azken urteetan bigarren entrenatzaile bezala ibili naizenez, berezko aldaketa egin du zuzendaritzak. Hainbeste urtean entrenatzaile izan da Alex Oliden, eta nekatuta dagoenez, ni jarri naute.

**Erraz onartu al duzu proposamena?**

Bueno, etxean eta hitz egin behar dira aurretik, eta azkenean, baiezkoa eman dut.

**Lehen esperientzia al duzu aurreneko entrenatzaile lanetan?**

Aurreko denboraldian gazte mailako talde baten ardura izan nuen, baina hau lehen aldia da seniorren taldeko entrenatzaile naizela.

**Ez da gauza bera lehen entrenatzaile izan edo bigarren bezala aritu. Buruari gehiago eragiten al diozu orain?**



Bai, buelta dezente ematen dizkiet gauzei, zalantza asko izaten direlako balio duzun edo ez jakiteko. Lehen taldea izanik, presio handiagoa dago, eta igartzen da hori. Baina tira, jokalariek animatuta daude, eta horrek asko laguntzen dit.

**Entrenatzen hasita zaudete, eta iraileko lehen larunbatean, Zarautzen aurka jokatu zenuten, Euskadiko Koparen bai-**

**tan. Zer moduzko lana egin zenuten?**

Hirutik galdu genuen, baina partida polita egin genuen. Jokalari batzuk falta genituen, eta gustura geratu ginen egindakoarekin.

**Noiz hasiko duzue liga?**

Irailaren 24an. Hiru aste barru. Oraindik badugu entrenatzeko denbora.

**Zer emango diozu taldeari?**

Lagun bat gehiago izango naiz. Aurreko urteetatik gauzak ez dira asko aldatuko. Nik nire puntua emango diot. Ez da erraza izango, Pulpo bezalako klubetan zaila delako lan egitea, jokalariek entrenatzeko arazoak izaten dituztelako ikasketak eta lanak tarteko. Ahalik eta lan gehiena egiten saiatuko gara, baina kontuan hartuz zer muga dauzkagun entrenatzeko orduan.

**Hain zaila da al da talde osoa batzea entrenatzeko?**

Hiru entrenamendu egiteko

“Defentsan lan ona egitea gustatuko litzaidake”

asmoa egon da beti, baina iaz, batzuetan, bost jokalaririk bakarrik azaltzen ziren. Esan genien bi egingo genituela, baina bi horietara azaltzea derrigorrezkoa zela. Fran Aizpuruak eramaten digu prestaketa fisikoa, eta azaldu ezin zutenentzat bakarkako lana prestatzeko eskatu genion, gimnasioko lana behintzat egin zezaten jokalariek. Pentsatzen genuen nahikoa izango zela.

**Aurten ere horrela moldatuko al zarete?**

Uste dut bi entrenamenduetara ia denak azalduko direla. Ingleseko klase partikularrak eta herrian bertan

**Joakin Esnal****Jaioterria: Zumaia****Urtea: 1973**

izaten dituztenei eskatu diegu aldatzeko klaseen egunak, entrenatzera etorri ahal izateko. Onartu dute, eta hasiera batean, ematen du hobeto moldatuko garela entrenamenduetan.

#### **Beste taldeek ere horrelako arazoak izaten al dituzte?**

Ez, ez. Batzuek lau egun ere entrenatzen dituzte astean. Zumaian beti izan ditugu arazoak.

#### **Iazko talde antzekoa al daukazu?**

Bai. Elgoibarko bi jokalarik ez dute segitzen, eta Maikel ere utzi egin du. Gazte mailako batzuk igo dira.

#### **Kanpotik ekarri al duzue norbait?**

Bai. Arrateko Xabi Luque etorri da.

#### **Zein da helburua?**

Lehendabizi jakin behar dugu nola geratuko den gure multzoa. Berez, hamalau taldek egon behar genuen, baina hamabi

bakarrik gaude oraindik, Torrelavega mailaz igo delako goiko talde batek berari zegokion lekua eskaini eta gero, eta Arrate desagertu egin delako. Ez dakigu beste bi talde gehiago sartuko dituzte horien ordez, edo hamabian utzi eta inor ez den jaitsiko. Hasierako helburua da mantentzea, eta gero ikusten badugu gauza gehiago lor ditzakegula, saiatuko gara horretan. Denboraldi polita egitea da helburua.

#### **Olidenen metodoari zerbait berria gehituko diozu?**

Gutxi gorabehera antzera ibiliko gara, jokalarri aldaketa gutxi dagoelako. Aldatu-ko dut zerbait, entrenatzaile bakoitzak bere ideak dituelako, baina Alex (Oliden) gurekin egongo partidetan, berak duelako entrenatzaile titulu naguia, eta ez da asko aldatuko gauza.

#### **Zer ezaugarri izango dituzte taldeak?**

Defentsan lan ona egitea

“Baloia azkar mugitzen saiatuko gara, gorputzez aurkariak baino txikiagoak garelako”

gustatuko litzaidake, azken denboraldietan ez garelako ondo ibili arlo horretan. Ez da erraza guretzat ondo defendatzea, jokalarri garaia eta indartsuak daudelako beste taldeetan; gu, berriz, txikiagoak gara. Entrenatuko dugu defentsako lana, eta saiatuko gara hobetzen. Olidenen laguntzaile egon naizen bi urte hauetan, nire lana defentsako arloa hobetzea izan da.

#### **Eta erasoan?**

Baloia azkar mugitzen

saiatuko gara, gorputzez aurkariak baino txikiagoak garelako. Abiadura azkarrean mugitzea izan behar du gure helburua.

#### **Nolako maila dako Lehen Maila honetan?**

Parekotasun handia dago. Pentsa, iaz, azkena geratu ginen, eta Zarautz aurrea. Bada, Zumaian berdindu egin genuen, bi taldeek jokoan asko genuela. Eta bigarren sailkatuaren kontra ere gol batetik galdu genuen. Irabazitakoak ere justu antzean irabazi genituen. Beste taldeetan ere ez da aldaketa asko iaztik hona, eta oso berdintsua izango da liga.

#### **Olidene bezala, urteak eta urteak egin behar al dituzue lehen taldeko entrenatzaile?**

Ez dut uste [barrezka]. Familiaren esperoan gaude etxean, eta badakizu, horrek asko aldarazten ditu gauzak. Aurtengoa egingo dugu, eta ikusiko dugu zer gertatzen gero. ■



**Arrain eta mariskoak**

**Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak**

7 MARES Izoituak

Zuloaga plaza, 1  
tel. 943 862 309



Alai auzategia 8  
20750 Zumala (Gipuzkoa)

Diseinu zerbitzuak  
tel.: 943 14 31 22

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak  
a3zumala@terra.es

Kopiak eta materiala  
tel/Faxa: 943 14 31 20



**L I B R U D E N D A**

**AIZPURUA**

Aita-Mari auzategia, 17  
tel. 943 861 569

**ALBERDI**  
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188  
943 143261

**ALBERDI**  
Dj July

Musika onena eskontzetan, kinton ospakizunetan eta era guztietako festetan

600 982 810  
july\_alberdi144@hotmail.com




**ALGORRI TABERNA**

ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA



Ignacio Zuloaga enparantza  
tel. 943 861 157 anasetxekezapiak@telefonica.net

ILEAPAINDEGIA

*D'Ana*

Kantauri plaza, 6. behea tel. 943 117 406



**Ardantzabide**  
ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com

Erakusketa: Hego kalea, 4-5  
Denda: Txomin Agirre, 4 Aroztegia: Santiago, 40  
Tel.: 943 862 532 Tel.: 943 861 631

**ARGISUN**  
ENERGIA-KONPONBIDEAK


- Berokuntza sistemak
- Giroteza
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5  
tel. 943 861 995

www.argisun.com  
info@argisun.com



OKINDEGIA  
*Artispe*



Napuzki 2 - tel. 943 861 921  
ZUMAIA

OGI-EDER

**ARRUTI**

Baltasar Etxabe 2/9  
Zumala 943016429




**AUTOS ZUMAIA**

Urola plaza, 3-5 tel. 943 861 485

Finis, French, English, Español, Catalonian, Italian, Basque, Catalan, Finnois, Francés, Inglés, Español, Francés, Catalán, Inglés, Basc, Catalán

**Bakun**  
ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25 tel./faxa 943 148 306  
20749 Arroa bakun@euskalnet.net



**Basodi**  
albaitaritza

Albaitaria  
Itzi Garmendia

Basadi, 7, behea - tel. 943 143 310  
velenasa@basodicalivet.com  
www.basodicalivet.com

Gótzeez: 11-13 / Arretuak: 16-19:30 / Astelotzen goizean eta larunbelean 8:30a  
Lamiak/Elbarako: 606 728 707 Ebezez ebeko zerbitzua

**BASUSTA**  
ERRETEGIA



Patalla Etxezarreta, 25 tel. 943 862 073

**BATELA**



**ARRANDEGIA**

Izustarri, 2-4 Tel. 943 860 750

**Braky's**  
Okindegia Kafeategia

Izoga kalea, 2  
20750 Zumala (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 57 07 79  
Móvil: 649 967 289



# Ikasgela falta Zumaiako Herri Eskolan

LUBAKI GURASO ELKARTEA

Ikasturte berria hastekoa da eta seme-alabak Herri Eskolara bidaltzen dituzuen gurasoak honezkero konturatuko zineten Sagarbiden moduluak jarri dituztela. Lubaki Guraso elkarteak lantaldeak honako hau jakinarazi nahi die guraso horiei eta herritarrei orokorrean:

Herri Eskolak duen toki falta dela-eta, ikasturte honetan eta aurreko urteetan gai honi irtenbiderik egokiena eman nahian lanean aritu gara.

Besteak beste, proposatzen genuen Sagarbiden, Institutu ondoan, dagoen "Kontzerbagintzako" eraikina erabiltzea (gaur egun ordu batzuetarako erabiltzen da soilik) edo Zumaiako

Udalak eskola zerbitzuetarako gordetako lur eremua erabiltzea (Sagarbide ondoan, kanpoaldean). Eraikin berria egitearen proposamenari ezezkoa eman zion Hezkuntza Ordezkaritzak eta proposatu zuen 2011-2012 ikasturterako beharrezkoak ziren hiru gelak Sagarbideko aterpea itxi eta bertan egitea, eta etorkizunean hirugarren solairu bat altxatzea. Guraso Elkarteak lantaldearen helburua, hasiera-hasieratik, ikasleek dauzkaten jolastokiak eta Sagarbideko aterpeak arriskuan ez jartzea izan da, hau da, ahal bada ez ukitzea eta bestelako konponbideak bilatzea. Beraz, hiru gelak lortzeko, "Kontzerbagintzako" eraikina erabiltzea edo Udalak eskola zerbitzuetarako gordetako lur eremuan kokatzea moduluak.

Hezkuntza Ordezkaritzarekin hainbat bilera izan ditugu, eta horietan, eztabaidatu ondoren, gure proposamenak ontzat jo zituzten. Baina Ordezkaritzakoek eskaera Eusko Jaurlaritzara bideratzean, Eusko Jaurlaritzak ezetz esan zien

gure proposamenei eta erabaki zuen Sagarbideko jolastokian moduluak jartzea, eta hantxe jarri dituzte.

Udalak, berriz, Eusko Jaurlaritzak agindutakoa ontzat jo du, Guraso Elkarteak eskatzen zuenaren

alde gehiegi borrokatu gabe.

lazko ikasturtean, Guraso Elkarteak hainbat eskaera eta proposamen egin zituen, baina gure ustez instituzioek ez diete eman erantzun egokirik Herri Eskolaren beharrei, dirurik ez dagoela argudiatuta. Diru falta dagoela jakin badakigu eta onartzen dugu, baina uste dugu instituzioek garrantzi handiagoa eman beharko lioketela gaiari eta gehiago konprometitu

gure seme-alaben hezkuntzan eta etorkizunean eragiten duen arazo honetan. Instituzioek diote kalitatezko heziketa publikoaren alde daudela; hori egia bada, has daitezela behingoz lanean hori aurrera eraman ahal izateko, hitzetatik ekintzetara. Lur eremua eduki badaukagu, eta

Instituzioek ez diete eman erantzun egokirik Herri Eskolaren beharrei, dirurik ez dagoela argudiatuta

Herri Eskolari eman diezaiotela gure seme-alabak hezteko beharrezkoa den tokia. Behar adinako gelek ez ezik, kalitatezko beste zerbitzu batzuekin, noski: jangela eroso, informatikako gelak, liburutegia...; hitz batean, KALITATEZKO heziketa publikorako beharrezkoa den guztiarekin.



## BEDUA ITURGINTZA S.L

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industrigunea, 9  
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa  
tel. 943 143 369

## EGOKI



Erloju  
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6  
tel. 943 861 787



Erribera kalea, 6 20750 Zumala tel. 943 143 097  
ekinsi@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak  
Telekomunikazioak  
Informatika  
Internet



DIGITAL+



Erribera, 8

tel. 943 861 694



V. Arrate, 3

Tel. 943 860 045



ERROTA  
OPIL-OKINDEGIA  
SANTIXO AUZOA, 32  
20750 ZUMAIA  
TEL: 943860000  
943860612  
FAX: 943860977  
errota@errot-aofindegia.com

## ERTZ INFORMATIKA

Portatilak  
konpontzeko  
zerbitzu berria

Eskatu aurrekontua  
kompromisorik gabe,  
**DOAN**

Behoko plaza

tel./faxa: 943 143 395

## FARMA ZUMAIA

Parafarmazia • Belar-denda  
Tel. 943 865 323

### PRODUKTUAK

- Urne eta haurrentzat, dietetikoki, kosmetikokiak, hanka eta eskuen zaintzarako...

### ZERBITZU BEREZIAK

- Dieta, Naturapala, Idoklogia, Flores de Bach, Masajeak (Terapeutikoak, Kirolentzako, Lesiozkoak, Etsaren Arretutasen, Buruko minen, Zirkulazio arazoak... kontrakoak), Akupuntura: horietatik edo horietatik gabe

BASADI KALEA, 3 - BEHEA - ZUMAIA

## Galdona



Mendara mamela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346  
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

## GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057



Txomin Agirre kaia

Tel. 943862181



GAZTE, S.L.  
ELEKTRIZITATEA

Era gutietako instalazioak etxebizitza, pabiloi eta herriko argietan

Trenbide pasealekua, 5. pabilioia

tel./faxa 943 143 402 mugikorra 610 262 617



GOIKO TABERNA

Erribera, 9

tel. 943 861 391

Ikastegi homologatua

Golden Gate  
Institute  
hizkuntz eskola



Erribera kalea 1 bis, behea  
tel./faxa 943 865 020  
goldengateinsti@telefonica.net

Gure Txokoa  
taberna



Upela plaza, 4  
20750 Zumaia  
Tel.: 943 86 09 70

English School  
Harvest

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera

San Jose, 11 bis

tel. 943 143 334





# Zumaia ez dago gaizki

Doinua: "Mundu hau uzten bazun"

- 1.** **B**erriz ere hasi da futboleko liga. Kontxak jarriko die estropadei ginda. Hurrek eskoletara laster dute jira. Eguna ere nabarmen laburtzen ari da. Ta turistak joan dira beraien herrira.
- 2.** **E**kainean hasi ta irailerarte Zumaia turistekin egiten da bete. Beraien begirada desberdina ote. Oso herri polita dugula diote Ta askori harridura sortu ohi diete.
- 3.** **P**aolaldea dugu leku bat "normala". Ba nik bi Madrildarri entzun nien hala. "Alde batera dute itsaso zabala, beste aldera berriz mendien itzala." Ta hori beraientzat berezia zala.
- 4.** **K**aleetan dabilta gora eta behera Bisitatuz Itzurun eta Erribera. Batzuk ausartzen dira Algorri aldera esku batean mapa bestean kamera. Han bisita merezi duen zer ote da?
- 5.** **I**róni puntu batez ari nintzen noski. Nahiz kosta Karibeko urekin ez busti. Nahiz ez izan Cambrillsen adina eguzki Ez da Hondarribia ta ez da Donosti Baina sinistu herri hau ez dagola gaizki.



ANDER HORMAZURI

Q V A D I V M



kiroliekos

Kontxako banderak  
ihes egin die, baina  
arraunlariek ez dute  
sekula ahaztuko irailaren  
11n Donostian bitzakoa.  
Hau duzue kaian  
bitzakoaren kronika.

# NAGOREREN AMETSAK

TESTUA: AITOR MANTEROLA  
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA ETA  
GORKA ZABALETA

BALEIKE +



*Loa gobernatzaren ari zen patrioiari ametsa sortu zitzaion uztaileko gau batean. Bandera bat astintzen ikusi zuen bere burua. Ametsa egia biburtu zen. Santanderren Zumaiak irabazi zuen.*

*Abuztuaren amaierako gau batean, berriaz amestu zuen gauza bera: bandera eta arraunak gora. Handik gutxira, Orion, Zumaiako arraunlariek jaso zituzten arraunak.*

*Kontxako Banderaren bezperatan, estropada handienaren garaile ikusi zuen Zumaia patrioiak. Ametsa zen.*

Irailak 11 ditu. Goiz giro ederra dago Donostiako arranplan. Eguzkia esnatzen ari da oraindik. Lehenago jaiki dira ohetik Zumaiako arraunlariak. Zortziak laurden gutxitan abiatu dira herritik hiriburura. Furgonetan, estropada guztietara eramaten dituzten gauzak daramatzate. Eta lau segundo eta bost segundoko errenta.

Iritsi dira Donostiako arranplara, eta lasai eseri dira lurrean. Kontu-kontari dabilta batzuk. Norbaitek taldeko norbaiti, edo denei, bidalitako eskutitza eskuz esku dabil. Gorriz dago idatzia. Platanoa jaten ari da beste bat. Parez pare daukate Enbata trainerua. Buruz behera dago. Baina harro-harro, lehen igandeko balentria barru-barruan sartuta.

Jaiki dira arraunlariak, eta ontzia garbitzeari ekin diote. Popatik brankara. Itriborretik ababorrera. Urdin kolorea ia-ia gorri utzi dute. Lan hori bukatu, eta berriaz eseri dira. Entrenatzailea hasi da hizketan. Beroketa bukatu ondorengo tartean zer nola egin behar duten ari dira erabakitzen. “Luzaketa ariketak-eta bukatzean, berriaz ere hona zatoztenean, jarri kartolak eta gu gurera”, esan die entrenatzaileak. Ez du nahi arreta edozertan galtzea. Joan dira kafea hartzera arraunlariak. Kafea hartzea ziaboga hartzea bezain derrigorrezkoa da arraunlarientzat.

Esperoan, zerbait erori da trainerura. Zirina. Kaioren batek edo usoren batek zerbait adierazi nahi izan du. “Gaur irabazten diagu, Kike!”, entzun da, halakoak eta zorte ona lotzeko joera gogora ekarriz. Irribarre txikiarekin erantzun dio entrenatzaileak. Bederatzi eta erdiak jota direnean, arraunlariak bueltatu dira. Trikitilariet lagunduta egin dute Alde Zaharretik moilarako bidea. Saltoka datoz, pozik. “Lehenigo igandean ere gauza bera egin genuen”, berriaz ere zorte onari keinua bota nahian.

Arraunlariak Pasealeku Berrira igo dira, berotzera. Hauek desagertu eta arranpla gorriaz janzten hastea bat izan da. Hasi dira agertzen zumaiarrak. Arraunlariek berotzeko ariketak bukatzerako, arranpla gorria da. Jaitsi dira behera, eta hartu dute trainerua. Uretara doaz. Txalo artean. Malkoren bat erortzen hasi da. Tostetan jarri, dena prestatu, eta epailearengana jo du traineruak. Zerrenda pasatu eta gero, Zumaiako txarangaren hotsa entzun da. Aita Mariaren irudiaren parean daude. Bat, bi, hiru, lau... bost, sei, zazpi, zumaiarrak estropetan irabazi, aurrera! Doinu hori belarrietan, eta kolore gorria begietan, moilatik atera da Enbata. Hamarrak eta laurden inguruan daude erlojuak.

18. orrialdean jarraitzen du.



Lehen igandean alde polita lortu zuen Zumaiak.





Bigarren estropadaren hasieran ondo eutsi zioten Getaria-Tolosa eta Galiziaren erritmo biziari, baina ziabogan joan zitzaizkien aukera guztiak.



Kai inguruan zumaiarren babesa izan zuten goiz-goizetik, baita uretatik ikusteko moduko bandera handiak ere. Azkenean, estropada amaitu zenean, merezitako bainua hartu zuten arranplan.



ARGAZKI PRESS

Bandera ez lortu izanaren penak joan zitzaizkien arraunlariei arranpla gorri-gorri ikusi zutenean. Irabazle sentitu ziren.



**API**  
**Ibaitain**  
 inmobiliaria

Ricardo Azkue  
 API 399

Txomin Agirre 4, behea  
 tel. 943 862 651  
 faxa 943862748

rijazcue@euskalnet.net

*Idoia*  
 Moda denda  
 Andragaietan espezializatariak

Julio Beobide, 2 behea Tel. 943 86 03 01  
 idoizumaia@gmail.com

**Shinza**  
 Zumaia

**ilarzi**

Alai auzategia, 2  
 Tel. 943 24 50 20

**ALAI BERRI**  
 supermerkatuak

Astelehenetik igandera 08:00etatik 15:00etara  
 eta 17:00etatik 22:00etara, urte guztian.  
 Etxera banaketa doan  
 Alai auzategia, 5 • 943 118 394

**IRUITZ**

Ileapaindegi Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
 Tel.: 943 860 760

**ITSASKI**  
 SUPERMERCATUA

Urumea kalea z.g. tel. 943 143 058

**Itzurun, S.L.**  
 Aroztegia

Ateak, leihoak, tarimak, armairu enpotatuak...

Itzurun Zuhazbidea, 2 behea  
 Tel. / Fax: 943 86 15 65

**ORRAZTEGI**  
 ZUMAI

943 862 083

**JUARISTI**  
 jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran  
 Eguneko menua  
 Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943 861 853

**KABI** Patxia Etxezarotz 15  
 943 117 427

TABERNA

**Kaithermik S.L.**

**Arotzeria metalikoa**  
 Aluminiozko leihoak ZTHrekin,  
 PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

**kalari**

Upela plaza, 8  
 tel. 943 862 517

**Kresala**  
 Taberna

Julio beobide 3, tel. 943 019 869

**kuttun**  
 lentzeria

erribera kalea tel. 943117936

**Larraitz** ile-apaindegi  
 leku erakusgarri zentral

Basadi auzategia 5 behea  
 Zumaia  
 tel.: 943 14 30 41

**malaun**



## ◀ TALDEA

Zutik eta ezkerretik eskuinera:  
Bixente Aizpurua, Manu Gonzalez Aramendi, Luis Mari Goikoetxea, Kike Manterola, Maika Rodriguez, Olatz Agirregabiria, Lierni Garcia, Atsegin Odriozola, Leire Alcala, Irati Zubieta, Oihana Erkizia. Eserita, bigarrenetik hasita: Jon Larrañaga, Elixabete Pescador, Leire Antia, Maite Amilibia, Mirari Iburguren eta June Aranbarri. Lurrean etzanda, Aintzane Urbieta eta Nagore Osoro. Argazkian falta dira: Natalia Diaz, Eneritz Alkorta, Ana Maria Garcia, Nerea Orena, Naiara Perez eta Mainer Urbieta.

## Emakumeak ez dira argazkirako bakarrik

Arritxu Iribar

Ezer baino lehen, zorionak Zumaiaiko arraunlariei. Denboraldia oso ona izan da, astebetetz amets egitea ere posible izan da, baina batzuetan ametsak egia bihurtzen badira ere, ez da posible izan. Oinak lurrean, jakina zen enpresa zaila zela, Getaria-Tolosa eta Galizia koadrila indartsuagoak zirela, baina Zumaia teknika ona izanik eta baldintza egokiak emanez gero muturra sar zezakeela. Beraz, nahiz eta gertuen Kontxako bandera izan eta bigarren saioan galdutakoa hurbil izan, ikusmira zabaldu eta azterketari nota oso ona eman behar zaio. Zarauztarrek utzitako Enbatak plusa eman du, psikologikoki ere asko lagundu du eta azkenean ederra izan da zumaia zaleak berpiztu eta berriz ere Donostiako arranpla gorritz janztea.

Hala ere, ezin dugu aipamenik gabe utzi Kontxan emakumeekin gertatutakoa: Galiziako ontzian

sailkapen egunerako izendatutako koadrilatik 3 ez ziren Donostian; beraz, horiei dopinaren aurkako kontrola egokitu balitz, zer gertatuko zen?; horietako neska batek lehenengo igandean arraun egin zuen, eta bigarren egunerako ere beste arazo bat konpondu gabe: Alacanteko arraunlaria fitxarik gabe uretaratu zen... Egoera irregular horiek salatu eta erantzunak: "Berandu da", "Emakumeen arautegia ez dago gizona bezain zehaztua", "Horrelako detaileak albora utzi behar dira emakumeen parte hartzea bultzatzeko"... Jaun-andreok, agian klub guztiek ezin dute gauza bera esan, baina batzuek oso serio egin dute emakumeen arraunaren aldeko apustua; arraunlari batzuek 11 hilabete daramatzate entrenatu, zaindu, sakrifkatu eta duten guztia ematen kirol honen alde,



gizonezkoen pare... Hala ere, oraindik batzuek diru laguntzak jasotzeko bakarrik edo emakumeen berdintasunaren alde zerbait egiten duten itxura emateko bakarrik edo politikoki egokia delako, besterik gabe, hartzen dute euren ustez "serio" kirol hau. Emakumeak ez dira argazkirako bakarrik, eta 4. urtez antolatu arren, emakumeek erakutsi duten bezala, agintariek eta antolatzaileek ere maila bera eman behar dute. Lanean, kirolean serio ari direnak, serio hartu. Zorionak Zumaiaiko arraunlariari eta segi orain arte bezala lanean, baina zuek erakusten duzuen duintasun bera exijitu besteei.







Zumai txarangak giro-tuta, sekulako festa izan zen ondoren Donostiako Alde Zaharrean. Marea gorriak ikusmina sortu zuen kaleetan zebiltzan turisten artean ere.



### Oihana Erkizia

“Pentsatzen genuen jende asko etorriko zela, baina imajinatu ere ezin genuen egin arranpla horrela ikustea. Bandera lortzea ederra izango da, baina arranpla dena gorritz ikustea ere bai. Guk bagenekien oso zaila zela irabaztea. Maiatzean ontzia osatu gabe genuen eta besteak urte guztian aritu dira lanean. Hori igerri egin da”

### Nagore Osoro

“Kaian sartu eta arranpla dena gorritz ikusi dudanean, negarrez hasi naiz. Neskei esan diet begiratzeko zer zen hura, benetako marea gorria. Hau bizitzeagatik bakarrik merezi du ahaleginak. Eskerrik asko etorri diren guztiei, Zumaiako herriari hau dena antolatzeagatik, eta etorri diren ondarrutar guztiei”.

### Maite Amilibia

“Arranpla gorri ikusi nahiko genukeela esan nuen eta kasu egin didate. Kaian sartu garenean eta hori ikusi dugunean ez genuen sinesten. Aurrekoak esan dit buelta emateko eta begiratzeko. Ikusi dudanean, ikaragarria izan da. Argazkietan ikusia nuen, baina uretatik hori bizitzea ordainezina da. Handia da jendea gure zain dagoela ikustea”.

### Leire Antia

“Inoiz baino jende gehiago etorri da eta eskertzekoa da. Arranpla gorritz ikus dugunean emozio handia sentitu dugu. Ez dugu bandera irabazi, baina sentsazio oso onarekin gelditu gara. Daukagun guztia eman dugu, eta horrelakoetan, ez baduzu irabazten, besteari zorionak eman besterik ez da gelditzen. Ekainean nola geunden ikusita, gaur honaino iritsi izana sekulakoa izan da. Asko bete gaitu”.

### Aintzane Urbietta

“Bagenekien Zumaia hemen izango zela, eta urduritasun pixka bat ere sentitu dugu, baina oso gustura gaude, herrian berriro ilusioa piztu delako, pixka bat apalduta zegoen afizioa agertu delako. Lehenengo igandean oso-osoa lasai nengoen, gozatzera etorri ginen eta oso ondo atera zen dena. Bigarren igande honetan urduriago geunden, lehenengoan irabazita bandera gertu ikusten duzulako”.

### Kike Manterola

“Irteera ona egin dugu baina gero kosta egin zaizu heltzen, eta pixkanaka alde egiten hasi dira. Segundo bat, bi, hiru... Arraunean nahikoa ondo egin dugu, baina zia-bogan joan zaizkigu aukerak. Pena da hainbeste jende etorri eta bandera ez irabaztea. Saiatu gara baina ez da posible izan. Ea orain Zumaian neskak animatzen diren arraunean egitera, zailtasunak digutu eta taldea osatzeko. Ez da jendeak uste duen bezain gogorra eta ea datorren urterako berriro txalupa polit bat osatzen dugun”.

### Luis Mari Goikoetxea

“Ea datorren urtean berriro hemen biltzen garen eta orduan bandera irabazten dugun. Neskek ere jendea erakartzen dutela ikusi da eta ea berriro txalupa osatzeko moduan garen”.

Arranplako gorria sakabanatu egin da orduan. Batzuk moilako eraikinen gainera igo dira, Aquarium alde-  
ra jo dute besteek, eta Alde Zaharreko tabernaren bate-  
ra ere jo dute beste hainbatek; Aita Marira, hain zuzen.  
Bertatik bertara edo telebistaz, estropadari begira jarri  
dira denak. Urduri dago jendea, isilik, lehia noiz hasiko.  
Furgonetan ekarritako lau eta bost segundoko errentak  
traineruaren tostetan dira orain.

Ondo ekin diote zumaiarrek. Segundo baten bueltan  
dabilza hiru indartsuenak. Santa Klara parera arteko la-  
nak ondo egin dituzte. Hortik zia bogara bitartean, hiru  
segundora atzeratu ere atzeratu dira, baina zia boga gertu  
dutela, berriz ere segundoaren jiran daude hirurak. Zia-  
bogan, ordea, lehen igandeko errentak han geratu dira.  
Maniobra txarra, eta trainerua buelta emateko zela, olatu  
artean geratu, zuloan. Joan da bandera. Badoa. Hamar  
segundora egin du ihes. Galizian egin du lekua berriz  
ere, eta Getaria-Tolosak bigarren postua ere hartu dio  
Zumaiari.

Arranplara denak berriz. Tabernakoak, eta moila  
inguruan geratutakoak. Gorriz margotu da berriro ere  
arranpla. Bandera handiak, bandera txikiak, kamixetak,  
zapiak, bixerak.... haur, gazte eta heldu. Badatoz irabaz-  
leak. Banderarik gabeko garaileak. Txaranga zain dute  
arranplaren azpialdean, bustitzetik gertu. Trainerutik  
jaitsi dira arraunlariak, eta “txapeldunak, txapeldunak”,  
entzun dute. Irabazi ez arren, pozik datoz. Arranplako  
giroak poza eman die. Badoaz gorantz, arraunak sorbal-  
dan batzuk. Gero, trainerua bizkarrean hartu, eta pasi-  
llo gorriaren artetik igaro dira. Momenturik politena ari  
dira bizitzen. Pozaren malkoak azaldu dira. Besarkadak  
han eta hemen. Zaleak eta arraunlariak elkar hartuta,  
eta arraunean egin ez duten arraunlariak eta arraunean  
egin dutenak lotu-lotu eginda. Familiakoak zain dituzte  
arranplaren goialdean. Besarkada gehiago. Eta txaranga  
jo eta jo.

Trainerua karroan utzi eta gero, uretan sartu dira  
arraunlariak. Tentsio guztien sua itzaltzeko aukera ona  
da. Blai eginda igo dira. Duxa zain daukate. Izerdiak  
gorputzetik kendu dituzte, baina herriak eman dien ba-  
besa, animoa eta berotasuna ondo itsatsita geratu zaie.  
Bihotzean gordetuko dute betiko.

*Nagoreren hirugarren ametsa ez da gauzatu, baina errealita-  
teak amets derira eskaini dio. Arranplan bizitako giroa amesten  
ez den horietakoa izan zen. Eta ederragoa da bertatik bertara  
ikuste eta bizitzea ametsetan baino. Errealitateak ametsak  
gainditu zuen. ■*





*Donostiako Konstituzio plazan arraunlariek eta zaleek argazkia elkarrekin egin ondoren, ospakizunak Zumaian jarraitu zuen arratsalde partean, Kofradian egin zitzairen omenaldiarekin. Mikrofonoarekin ere abildadea baduela erakutsi zuen Nagore Osoro patrioiak.*



**MAITE**  
ILEAPAINDEGIA



Amaiako plaza, 2 tel. 943 143 278

**Maluta**  
Jatetxea • taberna

oilasko erreak • kaxuelitak • ogitartekoak  
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA



pizzak  
hanburesak  
bokatak...

**marina**

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46

**Maxi**  
solarium

ileapaindegia  
estetika

etxezarreta, 9 tel. 943 861 021 lasonet.com/maxi

**MENDI - ONDO C.B.**  
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569

**METRO**  
taberna

ogitartekoak  
pintxoak

Upela plaza, 7  
tel: 943 537 901

**"Muagi"**

errehabilitazioa  
kirol medikuntza  
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943 861 691

✓ Eguneko menua.  
✓ Asteburuetan txotx,  
sagardotegiko giroan.



Muniosoro, 54  
OIKIA  
tel.: 943147891

**muniosoro**  
Taberna - Jatexea

**Nikol Enea**



TABERNA

Amaiako plaza

ETXEGINTZA  
**OLIDEN**  
CONSTRUCCIONES Y REFORMAS, S.L.

Era guztietako berrikuntza eta igeltserotza lanak:  
**FATXADAK ETA TEILATUAK**  
Sukaldeak, bainugelak...  
Tel. 647 040 156 / 686 911 257

**NOIA S.L.**  
TAILERRAK ETA  
KARROZERIAK

**Etengabeko garabi zerbitzua**

636 887 812 (Zumaiá)  
609 834 438 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan)  
20750 - Zumaiá  
Tel.: 943 861 363  
zumaiá@carroceriasnoia.com

Itziar industrigunea, C  
20820 - Itziar-Deba  
Tel.: 943 606 291  
noia@carroceriasnoia.com

www.carroceriasnoia.com

**OSA**  
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa  
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149

**OSKARBI**  
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arrantz, 1 Tel. 943 143 112  
oskarbikirolak@euskalnet.net

**OSTOLAZA**

OSTOLAZA ZUMAIÁ, S.L.

Joxe Mari Korta Industrigunea, A1 - 4, pab. 20750 Zumaiá (Gipuzkoa)  
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45  
www.ostolaza.com • e-mail: ostolo@ostolaza.com

**Ostolaza**  
Altzariak

Julio Beobide Ibitokia, 1  
20750 ZUMAIÁ (Gipuzkoa)  
mueblesostolaza@euskalnet.net

Tel./Faxa: 943 86 13 25

bigarren eskuko liburu eta disko

Urriaren  
22an eta 23an

# azoka

Iazko etenaldiaren ondoren, Baleike Kultur Elkarteak bigarren eskuko kultur produktuen azoka antolatuko du urrian.

Azoka aurrera atera dadin, ezinbestekoa da guztion parte hartzea. Etxean hamaika liburu, disko, dvd, komiki eta beste izaten ditugu hautsa jaten, eta azoka aukera polita da apaletan leku pixka bat egiteko. Hori bai, kontuan izan beste norbaitek erosteko modukoa behar duela izan.

Horregatik, egoera onean daudenak bakarrik onartuko ditugu. Materialarekin lagundu nahi baduzu, Alondegian utz dezakezu, urriaren 19ra arte.

Aurreko aldietan azokan bildutako diru nazioarteko lankidetzara bideratu da, baina aurtengoa baleike.com webgunea garai berrietara egokitzeko erabiliko da. Aurrerantzean ere, herriko kultur ekimenak bultzatzeko izango da.

# parte hartu!



## Baleike Kultur Elkarteak administraria behar du

Interesa duenak Curriculum Vitae-a bidali behar du [elkartea@baleike.com](mailto:elkartea@baleike.com) helbidera, 2011ko irailaren 23a baino lehen. Informazio gehiago behar izanez gero, idatzi mezu bat helbide horretara. Hemen dituzue lanpostuaren eginkizunak, ezaugarriak eta baldintzak:

### Lanpostuaren eginkizunak

- Administrazioaren koordinazioa eta kudeaketa.
- Gestoriarekin harremanak eta bitartekaritza.
- Aurrekontuaren jarraipena egin.
- Fakturak eta ordainagiriak egin.
- Diru-laguntzak kudeatu eta zuriketak egin.
- Publizitatea lortu eta kudeatu.

### Ezinbesteko baldintzak eta ezaugarriak

- Lanpostuarekin zuzenean lotutako ikasketak izatea.
- Euskara maila ona izatea.
- Ofimatikako programak menperatzea.
- Izaeraz planifikatua eta dinamikoa.
- Jendaurreko harremanetarako gaitasuna.

### Baloratuko da

- Eskarmentua izatea antzeko lanetan.
- Gizarte mugimenduetan esperientzia.
- Zumaia ezagutzea.

### Eskaintzen da

- Astean 5 ordu inguruko lanaldi malgua (hilean 20 bat ordu).
- Lanaren araberako diru-ordaina.



**BALEIKE**  
Baleike Kultur Elkartea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA  
Foronda Kultur etxea  
20750 Zumaia

# BEDUAOLAKO BATELEROAK

Garai bateko egurrezko belaontzien oihalak berriro haizatu nahian dabilen haize leunaren hauspoa sumatzen da joan den udazkenetik Ardantzabideko x. zenbakian. Bertan atondutako tailerrean ari dira Beduaola taldeko lagunak Jokin izeneko egurrezko batela zaharberritzen. Olarro Egunean moilara aterako dute, jendeak ikusi eta zaharberritze lanetan parte hartzeko aukera izan dezan.

TESTUA: GORKA ZABALETA  
ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA ETA RICARDO TORRE

**Iraila.** Kontxako estropadak Donostian. Badiako uretan hamalauko koadrilak arraunean, nor azkarren. Bandera, ohorea eta miresmena jokoan. Ostadarrez jantzitako mundu bat haiei begira. Traineruen Aste Nagusia da, Olinpiar Jokoak. Trainerua, uretako bolidoa. Gure arbasoek baleak arrantzatzeko diseinatutako ontzi azkar bezain ezegonkorra. Estropadak. Arrantzaleak lehian, portura lehena nor iritsiko, salmenta onena sari. Beharra kirol ikuskizun bihurtua. Horretan euskaldunak nagusi.

Euskal itsasontzi tradizionaleri buruz dakiguna azaltzeko gutako gehienok nahikoa genuke telegrama bat –twit bat, gauden garaietan–. Hain aberatsa izan da usadiozko ontzi-gintza gure herrian, zaila da ulertzen zergatik alboratu ote dugun jakinduria hori guztia. Iluntasunean argiune bat zabaldu nahian ari dira lanean azken urteotan Beduaola taldeko lagunak, ontzi tradizionalen inguruko jakintza berreskuratze-ko ahaleginean. “Gure nahia ez da soilik ontzi tradizionalak zaharberritzea, nabigatzeko erak ere berreskuratu nahi ditugu”, azaldu digu taldeko kide Ricardo Torrek.

Hasieran, Beduako ontziola berreskuratzea eta dinamizatzea zen Beduaola proiektuaren helburua. “Batel zaharrak konpondu, berriak egin, eskola moduko bat sortu, batelak erabiltzeko aukera eskaini... Baina hori dena bertan behera utzi behar izan genuen, jabeak ez zuelako inolako interesik”. Orduan, Beduako ideia alde batera utzi eta ontzi zaharrak berritzeko eta konpontzeko leku baten bila hasi ziren. Ardantzabiden aurkitu zuten. “Azaroan hartu genuen errentan

eta hemen ari gara lanean”.

Behin tailerra lanerako egokitu eta gero, *Jokin* izeneko batela zaharberritzeari ekin zioten, eta horretan dihardute gaur egun. Ez da, hala ere, zaharberritu duten lehen ontzia. “Aurretik Ezkailu batela konpondu genuen, 2005ean, garage batean. Errioan zegoen, nahikoa lagata. Egurrezkoa zela ikusi genuen eta zaharberritzeko moduan zegoela. Masta, heren oihala eta saihets berriak jarri eta beste zenbait konponketa egin genizkion. Batel berezia da, txopa motza daukalako, zuzena, biribildua izan beharrean”.

Torrek berak aitortzen du taldean ez dagoela “maisurik”, “ekinaren eginez” ari direla ikasten. “Oinarri handirik gabe hasi ginen, jakinminak bultzatuta. Baina informazioa lor daiteke, liburuetan eta ofizioa ezagutzen duen jendearengandik”. Dozena bat lagun inguruk osatzen dute taldea, eta bakoitzak ahal duen denbora eskaintzen dio proiektuari. “Hau afizioz egiten dugu, eta gure buruari ez diogu eperik jarri nahi. Dena den, nahiko genuke datorren udarako batel hau uretan izatea Ezkailu-rekin batera, eta, ahal izanez gero, lan handirik ez duen beste bat ere bai. Baina egunerokoak esango du”.

Oraingoz *Jokin* zaharberritzen badute nahikoa lan, baina dagoeneko beste ontzi batzuk dituzte zain. “Tartean Francisca egurrezko ontzi motorduna, ehun urte baino gehiago dituena. Motorra ere oso zaharra da. Ontzi hau Mutrikutik ekarri genuen. Beste batel pare bat eta txanela bat edo beste ere zaharberritzeko ditugu, denak egurrezkoak”.



► ZAHARRAREN  
GAINEAN BERRIA

*Batel zaharretik gorde  
daitezkeen zatiak mantendu eta  
beste guztia berritzen ari dira.*

### **Industrializazioak eragindako eten bortitza**

Mediterraneoko herrietan edota Galizian ez bezala, Euskal Herrian ontzi tradizionalak goizetik gauera desagertu zirela esan daiteke, batez ere industrializazioak hemen izan zuen indarragatik. Donostiako Untzi Museoak egindako ikerketa baten arabera, 1890-1920 urteetan gertatu zen aldaketa erabatekoa —ekaineko Baleike-n ontzigintzari eskainitako erreportajearen garbi ikus daiteke berrikuntza garaia izan zela—. Belak albo batera utzi eta motorrak bultzatutako helizea nagusitu zen.

Baina hori ez zen izan larriena. Okerrena izan zen ontzien diseinua ere erabat aldatu zela. Motorrarekin ibiltzeko egokiak ez zirelakoan, hemengo ontzi tradizionalak erabat baztertu eta Europa iparraldetik ekarritako baporeak nagusitu ziren.





## Jokin batelaren historia

Gaur egun zaharberitzen ari diren batela Zarauzko Udal Biltegitik ekarri zuten. “Taldeko batek ikusi zuen lehen aldiz, trenetik. Erabat utzita zegoen. Biltegiako arduradunarekin hitz egin eta eramateko baimena eman zigun”. Ondoren jabearekin jarri ziren harremanetan, ontzia matrikula eta guzti eskuratu ahal izateko. Izan ere, matrikularena da ontzi bat zaharberitzeko sortzen den buruhauste handienetako bat. “Askotan ontzi zahar hauek ez dute matrikularik, paperak galduta daude, urte askoan utzita egon direlako. Ontzi zahar bat konpontzen eta beritzen baduzu eta ez baduzu matrikularik, paperak ez badituzu legearen arabera, berez ezin duzu ontzi hori erabili. Legeak ez du inolako erraztasunik ematen ontzi tradizionalak berreskuratzeko”, kexatu da Ricardo Torre. Zorionez, *Jokinen* paperak eskuratzeko arazorik ez zuten izan, jabearekin tratua eginda. Lokala lortu zuten arte San Martin baserrian eduki zuten ontzia, buelta emanda.

Batela berez ez da oso zaharra, 1979koa da, baina badu bere historia propioa. “Donostiako portuan edukitzen zuten lehengo jabeak. Halako batean, arranplan zegoelarik buelta emanda, konponteta lanak egiteko, marea igo eta eraman egin zuen. Noraino eta Zokoaraino! Zokoan ditugun lagunek aurkitu zuten eta batela konpontzea pentsatu zuten. Baina jabea agertu zen batela errekamatuz. Batela berea zela ziurtatzeko frogaren bat eskatu zioten Zokoako lagunek. Branka aldean zeukan tanbutxoaren –ontzi hauek izaten duten armairu txiki bat– giltza atera eta atea ireki zuenean nahikoa garbi gelditu zen ontzia berea zela”.

Tragedia baten protagonista ere izan zen *Jokin*. “Aurreko jabeak kontatu zigunez, beste behin bi neskak hartu zuten Donostiako portutik badian pixka bat ibiltzeko asmotan. Baina batela irauli egin zitzairen eta nesketako bat ito egin zen”.

### ▼ LISTOIAK EGITEKO

*Batelaren hezurdura osatzeko, basoan propio aukeratutako enborretatik landu dituzte listoiak.*




## Zaharberitze lanak

Ontzia Zarauztik ekarri zutenean hain zegoen ustelduta batzuen iritziz hobe zen erabat berria egitea, ez zuen pena merezi zaharberitzen hastea. “Baina guk garbi genuen zaharberitu nahi genuela, zaharretik ahal zena mantenduz”. Eta lanari ekin zioten. “Lehenengo zeregina izan zen ontzia gogortzea, egonkortzea nolabait”, piezak kentzen hastean erabat honda ez zedin. “Behin hori eginda, armazoiia aldatzea pentsatu genuen, gero karela, eta azkenik, buelta emanda, forroa”. Tostak, brankako eta txopako tanbutxoak, masta eta beste elementu guztiak ere jarriko dizkiote kroskoa amaizten dutenean.

Zaharberitzearen prozesu osoa egin nahi dute. Esate baterako, ustelduta dauden saihetsak ordezkatzeko akaziako listoiak ari dira erabiltzen. “Egur oso gogorra da akaziarena”. Bada, basoan akazia egokienak bilatu eta moztu zituzten, gero listoiak egiteko. Behin listoiak egin-

da, bigundu egin behar dira armazoiaren forma biribildua eman ahal izateko. “Horretarako, aurrena ur gazitan sartzen ditugu. Uretan beratzen eduki ondoren, labean sartzen ditugu. Labea Xanti Osak utzitakoa da. Xantik asko daki egurrezko ontziari buruz eta noizean behin lokaleira etortzen da aholkuren bat ematera”. Labean sortzen den lurrunarekin erabat biguntzen da egurra. “Berez oso zurruna den akazia malgu-malgu gelditzen da”. Labetik atera berritan listoiak erraz oker daiteke, eta kroskoak eskatzen duen forma eman.

Kroskoaren forroa egiteko, berriz, pinotea erabiliko dute. “Gaur egun oso zaila da egur mota hori aurkitzea. Hemen, behintzat, ez dago, baina guk zorionez oholak eskuratu ahal izan ditugu”. Berga egiteko haltza erabiliko dute, eta oihalerako gordeta daukate kirol portuan aurkitutako oihal zahar bat.



### ◀ LABEA

*Labean bigundu behar izaten dira listoiak, batelaren forma borobildua eman ahal izateko.*



## ▲ OLARRO EGUNEAN ERAKUSTALDIA

Ekainean Britainian izan ziren Beduaolako lau kide, ontzi tradizionalen inguruan antolatutako jaialdia handi batean. Euskal Herrian ere egiten dituzte, Euskal Bateleroen Elkartearen eskutik. Olarro Egunean Zumaian izango dira.

### Herritarrek erabiltzeko

“Guk ez ditugu txalupa hauek zaharberritu nahi gero moilan lotuta egoteko. Herritarrek erabiltzea nahiko genuke. Hasieran, agian gutako norbait joango litzateke pixka bat erakustera, bela ere badutelako, baina guri gustatuko litzaziguke ontziak herriarentzat izatea, jendeak erabiltzea, belak zabalik ikustea”.

Euskal Bateleroen Elkarteak antolatzen dituen ekimenetan ere hartzen dute parte. “Euskal Herrian badira gurea bezalako beste hainbat elkarte eta herriz herri bilkurak eta erakustaldiak antolatzen dira. Esate baterako Olarro Egunean Zumaian egingo dugu bilkura horietako bat. Batelero Elkarteko kideak etorriko dira. Ontziak moilan jarriko dira, jendeak ikus dezan nolakoak diren, zer ezaugarri dituzten, zer maniobra egiten diren... Eta ondoren, nabigatu egingo dugu, estropada moduan edo erakustaldi moduan. Hainbat herritako ontzi tradizionalak etorriko dira Zumaia eta ikusteko oso polita izango da”. Gainera, *Jokin* batela moilara aterako dute, zaharberritze lanak jendaurrean egiteko.



# OTEZURI

## KAFETEGIA

Gosariak  
Ogia  
Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401



# La Prima Vera

## pizzeria

Alta Mari, 17, behea  
tel. 943 247 011

# Rosi

Garbiketak

Etxeak eta dendak  
Enpresa eta auzo lanak  
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 016 353



# RUBIO

## Pinturak

PINTURAK,  
ARTE EDERRAK,  
ALFONBRAK,  
DROGERIA,  
PINTATURIKO PAPERA,  
ESKULANAK...

943 861 335 • 656 779 788  
Erribera 1 behea

# Talaxia

## taberna-jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370



# TALAI-PE

## jatetxea-erretegia

Arrainak, mariskoak eta txuletak parrillan  
Julio Beobide ibiltokia Tel. 943861392



# Tapaia

## Taberna

Erribera kalea  
20750 ZUMAILA (Gipuzkoa)  
tel. 943 861 973

# TXIMISTA

## garagardotegia

Ogitartekook  
Plater konbinatuak  
Txerri-ukondok (hodilloa)  
Saltxitrak, oilaskok...  
Garagardok aukeran

Ondartza plaza, 4 behea Tel. 943 573 905



# Txingurri

## Loradenda

Loradenda Lorazaintza  
erribera, 1 tel. 943 860 778  
tel. 943 861 180 655 703 343

Nekazaritza Injineru Teknikoak

# Urola 2000, s.l.

## Aroztegia

\*Eraikitzen akabera eta dekorazioa  
\*Baserrien zaharberitzea  
\*Enbarkazio konponketak  
\*Alo, zokalo, tarima eta pertsiarik  
\*Armarri enpeltatuen aurrealdea  
\*Aroztegi metalikoa

Trenbide pasealekua, 1 tel. 943 143 505 - 619 424 323



# UZKUDUN

## taberna-jatetxea

Gosariak-Pintxoak-Kaxuelitak-Eguneko menua-Asteburuko menua-Merendak-Plater konbinatuak-Errazoiak-Afariak

Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 Tel. 943 865 349



# Xanti Osa

## Arantxa Azkue

Amalako plaza, 13  
tel. 943 860 914  
657 794 153  
Denda: tel./faxa 943 862 385



# Zalla

- plater konbinatuak
- ogitartekook
- oilasko erreak

Urtza Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAILA



# zapateixa

## Konponketak

Maitasun Ukananga

Oinetako eta erropa konponketak

Produktu eta material ekologikoa

Zunbilo kalea 8 • 20750 Zumaila • 943 861 252 • 652 727 740



# Zumaia Hotela

## Jatetxea Kafetegia

Alai suztegia, 20750 Zumaila tel. 943 143 441 faxa 943 865 161



# Zerbitzu Ofiziala

## ZUMAIA MOTOR

Santiago auzoa, 22  
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161



# ZUMAILA

## AUTO-ESKOLA

- Gidabaimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeltian
- GURE HELBURUA:  
Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 - behea • tel. 943 86 10 18 • ZUMAILA

# Zumaia optika



Txomin Agirre kaia, 6 tel./faxa: 943 143 057

# “SENTSAZIO BEREZIA DA UR GAINEAN ZUTIK JOATEA”

TESTUA: GORKA ZABALETA  
ARGAZKIAK: MARCELO DIAZ

Duela lauzpabost urte kirol ezezaguna zen arraun surfa gure kostaldean, baina zaletasuna pixkanaka zabaltzen ari da, besteak beste, Jesus Mari Aizpurua *Poti*-k eta bere lankideek egindako lanari esker.





ZUTUNDUCOM

Jadanik nahikoa ohikoa da gure errio, hondartza edo itsasbazterrean kirolzaleak taula gainean zutik eta arraunari eragiten ikustea. “Uraz gozatzeko beste aukera bat eskaintzen du, perspektiba berri bat; sentsazio berezia da ur gainean zutik joatea”, azaldu digu Jesus Mari Aizpuru, *Poti*-k. Badaki zertaz ari den, Euskal Herrian probatu zuen lehenengotakoa baita. Ordutik, surf mota honek “erabat harrapatuta” daukala aitortu digu. “Edonork ikas dezake taulan ibiltzen, teknika erraz ikasten da, eta gainerra eroso da, ez da sasoi betean egon behar”.

Laird Hamilton surfleri ospetsuak ekarri zuen surf modalitate hau Euskal Herrira, 2006an. Miarritzeko Surf Festibalak gonbidaturik etorri zen, eta Gipuzkoako kostaldean olatu bila zebilela Izustarrin aurkitu zuen gustukoa. “Hamilton Izustarrin zegoela segituan zabaldu zen inguruko surfleri eta zaleen artean. Denak ahoa bete hortz utzi gintuen Santiagoko hondartzatik taula luze baten gainean zutik eta arraunean abiatu zela ikusi genuenean. Ez genuen halakorik sekula ikusi. Saioa egin

zuen Izustarrin. Horrela ezagutu genuen surfean egiteko era berezi hau. Beraz, esan genezake lehen aldiz Zumaian ikusi zela arraun surfa gure kostaldean”.

Handik urtebetera izan zuten probatzeko aukera *Poti*-k eta lagunek, eta ikaragarri gustatu. “Lehena probatzen Ibon Amatriain izan zen, Lairdek utzitako materialarekin. Amatriain lagun handia dugu, eta haren bitartez Ladis Rivasek ekarri zituen Zumaia lehen taula eta arrauna, proba genitzan”. Estreinako saioa Itzurunen izan zen. “Tente mantentzeko gauza ere ez nintzen izan, baina erabat harrapatu ninduen”. Izan ere, ohiko surfaren aldean, abantaila bat badu arraun surfak: “Olatua hartzeko uanean ez daukazu zutitu beharrik, zutik zaude jada. Askoz erosoagoa da eta olatu gehiago har ditzakezu”.

Urtebete pasa zuten *Poti*-k eta lagunek erriogan gora eta behera, teknika ondo ikasten, olatuetan ibili ahal izateko. Gero, pixkanaka, afizioa ofizio bilakatzeko aukera ikusi zuten, eta lehia horretan ari diren gaur egun. “Marcelo Diaz lagunak hasieratik ikusi zuen aukera eta bera izan da ekimenaren bultzatzaile nagusia. Ni 2008an hasi nintzen gehiago inplikatzin eta gaur egun bion artean gabiltza proiektu hau aurrera atera nahian”.

Hasieran eskola bat sortu zuten, Gondolin Eskola, “Euskal Herrian lehen eta Espainiako estatuan ere bai, ziurrenik”. Jende askok oraindik ere eskolaren izenarekin identifikatzen du kirola bera, eta gondolin esaten



diote, baina ez da zuzena. Eskolakin ikusi zuten jendeak bazuela interesa, eta C4supcenter enpresa sortu zuten. “Batez ere Donostian ematen ditugu ikastaroak, baina Zumaian emateko arazorik ez dago, talderen batek hala eskatuz gero”. Donostian klub bat ere sortu dute jadanik, eta Bilbotik ere deitu diete erakustaldi jendetsua egiteko. “Pixkanaka zabaltzen ari den kirola da, baina oraindik gutxi batzuek praktikatzen dute Euskal Herrian. Mediterraneoan oso zabalduta dago, hango olatu txikiagoetan ibiltzeko oso aproposa delako”.

Surflari trebeenek olatuetan ibiltzeko erabiltzen duten arren, arraun surfa oso egokia da ur gainean paseatzeko. “Olatuetan ibiltzeko abilezia handiagoa behar da, baina, besterik gabe, ur gainean batetik bestera joateko, teknika oso erraz ikasten da. Ordu eta erdiko saioan oinarriko mugimenduak ikasten dira eta probatzen duten gehien-gehienak dira taula gainean zutik jartzeko gai. Gainera, aukera bikaina da uretako kirolekin harremanik izan ez duen jendearentzat, zailtasun handirik gabe errioz edo itsasoaz gozatzeko aukera ematen dizulako. Eta adin guztietarako da egokia”.

#### ◀ ASPALDIKO KONTUA

*Taula baten gainean zutik arraunean egitea ez da gaur goizeko kontua. Ezkerreko argazkia duela 70 bat urtekoa da, Lekeitiion eginikoa. Errioa zeharkatzeko erabiltzen zuten.*

#### ▼ LAIRD HAMILTON

*Surfean egiteko modu hau Izustarriko olatuan ikusi zen lehen aldiz gure kostaldean, Laird Hamiltonen eskutik, duela bost urte. Lehen saio hartakoa da argazkia.*



SURF30NET

# BARRAKO MOSAIKOAREN KOLORE BIZIAK

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET  
ARGAZKIAK: RAKEL NACENTA ETA GORKA ZABALETA

Zumaiako barran itsas istripuan hildako sei gazteen omenez Vicente Rodillak egindako mosaikoa bere tokian da berriro. Eraberrituta, aurpegi garbiarekin itzuli da bere txokora, barrara. Ez da erraza izan; lan asko eskatu du. Mila eta bat ordu. Baina merezi izan du. Berpiztuta bueltatu da, hasieran zituen kolore biziak, Rakel Nacentak egindako lanari esker.

**1960**ko azaroaren 15a egun beltza da Zumaiako historian. Egun hartan, Eskola Profesionalean ikasten ari ziren sei mutil koskor eraman zituen itsasoak, olatu handi batek erriora bultzatuta. Zazpigarren bat bizirik ateratzea lortu zuten. Mende erdi geroago gertaera hori bizirik dago herriaren ariman; ez da ahaztua izan. Hala geratu zen agerian pasa den azaroan, 50. urteurrena betetzen zela-eta barran bertan egin zen oroitzapen ekitaldian. Ordurako istripu hura gogoratzen duen mosaikoa bere kokalekutik kenduta zegoen, berriztatzeke. Faksimile moduan Begoña Blancok egindako akuarela batek hartu zuen haren lekua hilabete batzuek.

Mosaikoa Vicente Rodilla valentziarrak egin zuen, Antonio Aparisik eskatuta. Aparisi Hezkuntza Profesionala-ren Obra Sindikaleko buruzagi nazionala zen garai hartan. Rodilla, berriz, artisauen gremioko prokuradorea Espainiako Gorteetan. Kargu hori zuelako eskatu zioten mosaikoa egitea. Valentziarrak 1961ean amaitu zuen lana. Istripuaren lehen urteurrenerako bere kokalekuan zegoen: barran, olatu erraldoi hark zazpi gazteak eraman zituen leku berean.

Denborak, ordea, ez zuen izan errukirik mosaikoarekin. Itsasoaren indarra, kresala eta lanak berak jasotako kolpeak zirela medio, mosaikoa gero eta okerrago zegoen. Hasieran zuen distiratik oso urrun. Barran pasean ibiltzen zirenek ikusten zuten hori.

Horien artean zen Rakel Nacenta. Arte Ederretan lizentziatua eta berriztapenetan aditua, aspalditik zuen mosaiko hori berriztatzeke gogo. “Haren zaharberritzearen inguruko proiektua idatzi nuen 1997an, unibertsitaterako. Urteak

pasa ahala, gero eta okerrago zegoela ikusten joan nintzen, baita berreskuratzeko aukera zegoela ere”.

Iaz jaso zuen barrako mosaikoa berritzeko enkargua. 2010eko irailaren hasieran kendu zuten barratik eta ia urtebete geroago, iragan abuztuan, itzuli zen bere lekura. Bi une horien artean, ehunka lanordu daude (“Paper batean apuntatuta ditut, baina ez dut batuketarik egin”), baita hainbat ikerketa lan ere. “Mosaikoa jarri zen eguneko argazki batean oinarritu naiz ahalik eta lan gehien egiteko. Bestalde, dokumentatu egin behar izan dut, hainbat gremiorekin bildu, unibertsitateko proiektua zuzendu zidan irakaslearekin elkartu, marmol enpresara joan tesela bila, ezagutzen ez nuen teknika bat ikasi (burdinarekin lan egitea, igeltserotza)... Neure buruari esaten nion lan hori egin nahi nuela eta egiteko gai nintzela”.

Ez dira izan, baina, zortzi lanorduko egunak. “Familia- ren ardurek uzten zidatenean igotzen nintzen komentura. Batzuetan bi ordu sartzen nituen, besteetan bost. Asteburuetan ere pare bat ordu eskaintzen nizkion egunean. Morte- roa lehortzen zen bitartean kola prestatzen nuen, eta halako gauzak. Hasieran uste baino lan gehiago eman dit”.

Mosaikoarekin lan egiten ari zela, beste berriztatze lan batzuk ere egin zituen Rakelek. “Elizako hilobia (kristoa etzanda da- goen kutxa) berritzeko eskatu zidaten. Aste Santurako ama- ituta egon behar zuen eta hilobiari lehenasuna eman behar izan nion martxoan zehar”. Aste Santuaren aurretik garbi- tze eta bolumena berreskuratzearen lanak egin zituen. Baita oroitarria eta ezkutua zaharberritzeko lanak ere. Apirilaren amaieran eta maiatzaren hasieran tesela berriak ipintzeko la- netan murgildu zen buru-belarri. “Nahiz eta aurrez egindako lana azken hori bezain garrantzitsua zen, esan daiteke hortxe eboluzionatu zuela gehien lanak”. Uztailaren hasieran buka- tu zituen lanak eta abuztuaren 11n eraman zuten barrara.

Barra ez zen Rakelezko mosaiko berrituaren kokapen egokia. Ez hasieran, behintzat. “Alondegian jartzearen aldekoa nintzen. Bertan zegoen haur haien ikastetxea zen Eskola Pro- fesionala eta mosaikoa lehen aldiz berritatu zuena, Clamades Blanco, bertako irakaslea zen”. 50. urteurreneko ekitaldian bizitakoarekin iritzia aldatu zitzaion. “Lore erramuak uretara bota zituztenean hunkitu egin nintzen. Ikusi nuen oroitzapen haiek oraindik bizirik zeudela. Agian ez da lekurik onena izan- go mosaikoarentzat, baina bai familientzat. Horregatik, gustura jakingo nuke zer iruditzen zaien familiei egindako lana”.





LA OBRA SINDICAL DE FORMACION PROFESIONAL  
EN MEMORIA DE LOS ALUMNOS DEL TALLER  
ESCUELA "VIRGEN DE ARRITOKIETA" QUE PERE-  
CIERON EN TRAGICO ACCIDENTE DE MAR EL 15 DE NOVIEMBRE DE 1960.



ACHAGA AGUIRRE, IGNACIO  
AGUIRRE ZABALAGA ARREGUI, JACINTO  
GARCIA ARISTONDO, PEDRO MARIA  
MARTIJA MANCISIDOR, MANUEL  
MENDIZABAL ECHAVE, TOMAS  
URBIETA ARRIZABALAGA, MANUEL  
¿ QUE DIOS LES TENGA EN SU GLORIA ?

V. Rodilla.

# Prozesua argazkitan

## ► MOSAIKOA BERE KOKALEKUTIK KENTZEA

“Guztia kendu aurretik, lana finkatu egin zen. 2010eko irailaren 3an lehen proba egin zen. Igeltseroek bi triangelu kendu zituzten goialdetik. Ondo ateratzen zela ikusita, hurrengo egunean mosaikoa atera zuten, bost pusketatan. Puska txiki batzuk berriro egin behar izan nituen”.

## ▼ ATZEKO PARTEA

“Mosaikoak pare bat kolpe jaso ditu urte hauetan zehar. Bere kokalekuan jartzean erori egin zitzairen eta goiko partean pitzadura bat sortu zen; barra handitzerakoan bigarren kolpe bat jaso zuen aurrealdean. Hasieran, mosaikoa lisoa zen atzealdetik, baina egindako konponketa batzuk zirela medio, goiko zati bat aurreraka ateratzen zen. Ahalik eta mortero eta kola gehien kentzen saiatu nintzen, baina kontu handiarekin, mosaikoa desegin egiten zen-eta. Behin material hori kenduta, pieza guztiak euskailu berri batean itsatsi nituen, puzzle baten moduan. Horren ondoren hasi nintzen aurrealdean lanean”.




## ▼ EZKUTUA

“Obra Sindikaleko ezkutua berritzerakoan konturatu nintzen aurrez ere lan egin zutela berarekin. Hasieran jarritakoa eta niri heldu zitzaidana ez zen bera. Norbaitek berriro egin zuen. Garbitzen joan ahala, letoia agertzen hasi zen eta ikusi genuen pieza batzuk kolore desberdinetakoak zirela. Aurrez egindako lanaren seinalea da hori. Oxidazioarekin letoiak kolore gorrixka hartu du. Likido batekin metala zertzobait jan daiteke eta lisoa utzi. Baina kontua da nora arte heldu nahi duzun berriztatze lanekin. Behin piezak berrituta, letoizko tatxuela batzuekin lotu genituen (aurrekoak burdinazkoak ziren)”.



## ▶ OROITARRIA

“Olatuen zati bat falta zen eta berriro egin behar izan nuen. Testuaren zati bat ere falta zen. Lehenbizi arkatzarekin idatzi nuen eta gero zulatu egin nuen harria. Bitxikeria bezala, oroitarrri originaleko hizkiak ez zuten kolorerik; besterik gabe, zulatuta zeuden. Clamades Blancok margotu zituen. Pintura zaharra kendu nien, oroitarrria garbitu eta zuloak handitu ditut. Inprimazioa jarri eta gero, berdez margotu ditut hizkiak, berde koloreko olatuekin bat egiteko. Originalak ere ez zuen egilearen izenik; oraingoa mantendu egin dut. Ezker aldeko oxidazioa ere bertan utzi dut, materiala bera dago-eta oxidatuta”.



## ▼ OLATU BERDEAK

“Pieza asko falta ziren eta berriro egin behar izan nituen. Lehenik eta behin, zementua jarri nuen. Ondoren, teselak jarri nituen eta amaieran babestu egin nituen”.

## ▼ OLATU ZURIA ETA ADARRAK

“Lan gehien honek eman zidan. Hasiera batean ez ziren bolumenak ikusten; dena nahastuta zegoen. Olatua berriro egin behar izan nuen toki batzuetan. Lau hortzak erabat pikatuta zeuden. Laurak han zeuden, baina dimentsioak ez ziren berdinak. Hondoko zati bat ere falta zen. Behin hortzak eginda, badakizu non hasten diren marroi koloreko zatiak”.



## ◀ HONDOKOA

“Tesela batzuk falta ziren eta berriro egin behar izan nituen: oxidatutakoak kendu eta berriak jarri. Teselak Usurbilgo Ingemar enpresan egin zizkidaten. Zentimetro inguruko zabalera dute eta hiru bat milimetroko lodiera. Beharraren arabera moztu ditut. Behin garbitzen joanda, koloreak agertzen hasi ziren. Babesteko likido bat eman nion eta pigmentu bat tesela berriek eta zaharrek bat egiteko. Falta zen zati bat berriro egin behar izan nuen. Lanean ari nintzela, ura ateratzen hasi zen. Komentuko lorezaina den Iñaki Arrizabalagaren laguntzarekin, materiala pikatu behar izan nuen ura nondik zetorren ikusteko: burdin pusketa bat aurkitu genuen. Mosaikoaren oinarria zementua eta burdina da. Burdin pusketa hori kendu eta gero teselak egin eta jarri nituen”.

## ▼ IPINTZEKO LANAK

“Lehenik eta behin, marrazkia kendu zuten langileek eta haren tokian ura drainatuko duen lamina bat jarri zuten. Mosaikoak aire ganbera bat izango du atzealdean. Aire berritza ekarriko du horrek; kresala ere beheantz joango da. Aurrealdean kristal bat du eta gainean teilape txiki bat jarriko diote. Kresala garbitu edo tesela bat aldatzeko beharra dagoenean, nahikoa izango da kristala kentzea. Ez da beharrezkoa izango mosaikoa bere osotasunean kentzea”.





### Aseguru pertsonalak

Bizi-aseguruak  
Pentsio-planak  
Osasun-aseguruak  
Ehorzketa-aseguruak...

### Ondare-aseguruak

Ibilgailuak  
Jabekideen elkarteak  
Etxebizitza

### Enpresa-aseguruak

Kauzioa eta kreditua  
Erantzukizun zibila  
Garraio-aseguruak  
Arrisku anitzekoak...

### Finantza produktuak

Ibilgailuentzat finantzaketa berezia  
Epe finkoak  
Inbertsio-fondoak  
Hipoteka-maileguak eta pertsonalak



**AGUSTIN AZPEITIA**  
**Zuzendaria**

Etxezarreta kalea, 13

Tel. 943860813  
Faxa: 943862362

[ajoseag@mapfre.com](mailto:ajoseag@mapfre.com)

# **LARRO EGUNA**

## **Irailak 17**

**Ondo pasatu,**  
**PASATU GABE!**

**SUSTATU EUSKARA**  
**eta euskal KULTURA**

**Zaindu INGURUMENA**

**GOZATU FESTAZ**  
**BERDINTASUNEAN**

## **HARTU PARTE!**



Zumalako Udala



# IRAILA-URRIA

## ERAKUSKETAK

### Irailaren 23tik urriaren 16ra

MLDJ- 2011 Egitasmoa : Manu Uranga, Lorea Alfaro, David Martinez Suarez eta Jon Otamendi.

### Urriak 22/23 BALEIKEKO AZOKA

### Urriaren 26tik azaroaren 13ra

BILADI HADI elkartean brigada kulturalaren argazki erakusketa

## IKASTAROA

Foronda kultur etxean, urriaren 3an hasita: KZ Gunea, pintura, plastika, yoga, eskultura, Tai Chi,... Informazioa eta izen ematea : 943-861056 – Alondegia kultur etxea (irailaren 19tik aurrera)

## IRAILA

### Igandea, 25

Eguedian, GARAI BATEKO AUTOEN ERAKUSTALDIA Parolmuturretik Erriberan zehar.

### Olarro Eguna, irailak 17

09:00etan DIANA txistulariekin.  
Goiz partean VII. ARGAZKI RALLYA. Izen-ematea turismo bulegoan 08:30etik 09:30era.  
10:00etan koadrilen arteko batel-estopada, OLARRO EGUNEKO V. BANDERA, Gaztetoenekin hasita. Itsas kiroldegi parean izango da irteera eta Txomin Agirre kaian emango da ziaboga.  
Ordu berean, "BATEL EROAK" batel elkartearen erakustaldia Gernika parkean.

10:00etatik 12:30era ZUMAIA nautika elkarteak antolatuta, IRRATI-KONTROL BIDEZKO ONTZIEKIN SAIOAK Moilaberriko zubiaren eta Zubitxikiaren artean.  
10:00etatik 13:30era sukaldariak lanean Eusebio Gurrutxaga plazan: LEHIAKETA GASTRONOMIKOA, herriko elkarte eta koadrilen artean.  
10:30etik 14:30era Eusebio Gurrutxaga plazan, ELIKAGAIEN AZOKA, jaki eta edari dastaketarekin.  
11:00etatik 13:30era Gernika parkean HAUR ETA GAZTETXOENTZAT ANTZINAKO JOLASAK (zinta harrapatzea bizikletan, eltzetxoak puskatzea...), Itxas-Gain Elkarteak antolatuta.  
11:00etatik 14:00etara atea zabalik KOFRADIAN, ARRAINEN BENTA ARETOA ikusteko.  
11:15ean HAMAIKETAKO Pulpo elkartearen olagarro-harrapatzaile izandakoentzat.  
11:30etan IRAUNKORRAK txarangaren kalejira  
12:00ean BEHEKO PLAZA ABESBATZAREN SAIOAK herriaren zehar.  
13:30ean LEHIAKETA GASTRONOMIKOKO epaia eta sari-banaketa.  
Goiz partean, OLAGARRO-ZOPA txosnetan. Estropada eremuan kokatuko den txosnan brotxetak banatuko dira.  
14:30ean HERRI BAZKARIA, Eusebio Gurrutxaga plazan.



Irailak 17, larunbata, OLARRO EGUNA.

17:00etan Itsas kiroldegi paretik Txomin Agirre kairaino koadrilen arteko batel-estopada, OLARRO EGUNEKO V. BANDERA. Irabazleek helmugan bertan jasoko dute bandera. Emakumeen partaidetza bereziki saritua izango da.  
Ordu berean KUKAINA ETA URETAKO JOKOAK arranpla parean, Itxas-Gain elkarteak antolatuta.  
17:00etatik 20:00etara atea zabalik KOFRADIAN, ARRAINEN BENTA ARETOA ikusteko.  
17:30etik 20:00era ZUMAIA nautika elkarteak antolatuta, IRRATI-KONTROL BIDEZKO ONTZIEKIN SAIOAK Moilaberriko zubiaren eta Zubitxikiaren artean.

18:30etatik aurrera txosnetan olagarro-brotxetak eta sagardoa. Ordu berean IRAUNKORRAK txarangaren kalejira.  
21:30etatik 00:30era DISKO FESTA gaztetoentzat, Amaiako plazan.  
22:00etatik 01:30era Rock kontzertua: RAPA NUI eta NON LIMIT taldeak, Eusebio Gurrutxaga plazan.  
22:30etik 01:30era erromeria BASAJAUN taldearekin, Kofradian.

## URRIA

### Urterkia, Aita Mari aretoan.

### Urriak 7, 22:00etan

Munstroa – Urki muguruza

### Urriak 16, 12:00etan

GLU GLU. "Arratoitxo pinpirina"

### Urriak 28, 22:00etan

ARAN-ARAN "El lazarillo"

**TTAKUN TABERNA**  
  
Izustarri, 3  
tel. 943 865 289

**EKAIN**  
SAGARDO EKOLODJIA  
www.ekainsagardoa.com • Tel.: 943 148 033

**TXILLARRE EKO DENDA**  
  
Luzerrosketa ekologikoa etxera  
Zumaian banaketak, asteazken arratsaldetan  
635 008 496 • 943 742 085  
p.ekologikoak@euskalnet.net • www.txillarre.es

**Izaskun**  
Erribera kalea, 3  
tel./faxa: 943 860 098

**KANTAUARI TABERNA**  
  
Pintxoak - Plater konbinatuak - Kazolatxoak  
Pintxos - Platos combinados - Cazuelitas  
Kantauri plaza, bajo 4 - tel. 943 575 840

**PAPER** diseinu grafikoa  
Roberto Gutierrez  
696 211 111 • rgutierrez@rgutierrez.org • www.rgutierrez.org



## BELDURRA

**Jaio** zen herritik ez zen inoiz irten.

Bidaia-erabakiek izua eragiten zion, erabateko ikara. Zer gertatuko zen hegazkina eroriz gero? Edo auto-istripua izaten bazuen? Zer egin lurralde arrotz batean gaixotzen bazen, edo dokumentazioa lapurtu eta bakarrik gelduta geldituz gero?

Bidaia-erabakiek ikara eragiten zion. Horregatik, lehen aldiz oportetara joatea erabaki zuenean ongi planifikatu zuen guztia: herrialde arriskutsuak alde batera utzita

eta kriminalitate-tasak aztertuta oportetara Luxenburgora joatea erabaki zuen. Ondoren, istripu-estatistikak begiratu zituen garraio-bide seguruenaren bila, eta tren hautatu zuen, tren-konpainiarik ezagunenarekin billetea erosiz. Bidaiarako behar zituen botika guztiak erosi eta maleta prestatu zuen, hotz zein berorako arroparekin. Azkenik bidaia-aseguru bat kontratatu zuen, ezustekorik ez izateko.

Maletarekin etxetik irtetearen erori zen eskaileretatik behera. Hiru hezur hautsita ez zen ospitaletik mugitu oportetetan.



# BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

**BERRITUA**

Eusebio Gurrutxaga plaza • Tel. 943861700

- Eguneko menua
- Karta
- Pizakak
- Taldeentzako menu bereziak

# Casa BASUSTA



Ezkontzak, Bataioak, Jaunartzeak,  
Lore-zentruak, Koroak,  
Landare naturalak eta artifizialak,  
Zeramika-lanak eta zunezko saskiak

**Etxez etxeko zerbitzua**

Santiago Auzoa, 18 TEL: 943 862611





# zumartian

## www.zumartian.com

ezagutu Zumaiako eskaintzak

## Eskolara itzultzea

Ordaindu 3 hilabetetan interesik gabe

Irailaren 1etik urriaren 31era

**2.000 €**  
bale saritan

Zumaia txartela erabiltzeagatik!

Saria datafototik aterako da. Dataloroko tiketarekin ordaindu elkarteko dordotan, erosketa beniarekin bere prezioa sariaren kantitate berdinan edo handiagoa izanik. Balearen irautgite-data: 2011-11-30.

